

2002tik, urteko interesen ordainketa 509 milioitik gorakoa da

EROSKI-K 14,8 MILIOI EURO ORDAINDU DIZKIE INTERESETAN MENDEKO EKARPEN INBERTITU DUTENEI

- **Mendeko Finantza Ekarpenen (MFE) titularrei datorren astelehenean, otsailaren 2an, ordainduko zaie.**
- **2002an MFEak erosi dituen inbertitzaile batek, interes gisa, bere inbertsioaren zenbatekoaren % 108,1 jaso du.**
- **Aurtengo urteko interesak %5,246ean gelditu dira finkatuta 2002an eta 2004an jaulkitako MFEetarako eta Mendeko Obligazioetarako, eta %4,746ean 2007ko jaulkipenerako.**

Elorrio, 2026ko urtarrilaren 30.- [EROSKI](#)k, datorren astelehenean, otsailaren 2an, abonatuak ditu Mendeko Finantza Ekarpenei dagozkien urteko interesak, %5,535ko interes tasan 2002ko eta 2004ko jaulkipenetarako, eta %5,035tan 2007korako. Guztira, 14,8 milioi euro abonatuak dizkie EROSKIk interesetan inbertsio tituluak dituztenei.

EROSKI MFEen lehen jaulkipena egin zuenetik (2002an), kooperatibak zuzen ordaindu dizkie urteko interesak inbertsiogileei; dagoeneko, 509,4 milioi euro guztira. MFEak erreferentzia gisa Euriborra gehi 3 puntu hartzen du MFEen 2002ko eta 2004ko jaulkipenetarako eta %2,5eko diferentziala MFEen 2007ko jaulkipenerako.

Abonu horrekin, 2002an MFEak erosi dituen inbertitzaile batek hasierako inbertsioaren zenbatekoaren % 108,1 jaso du interes gisa. 2004tik MFEa duen inbertitzaile batek % 95,7 kobratu du interesetan; aldiz, 2007koak bere inbertsioaren balioaren % 69,4 sartu du.

2026. urterako, interesa % 5,246koa izango da (% 2,246 + % 3ko diferentziala) 2002 eta 2004 arteko MFEen jaulkipenetarako, eta % 4,746koa (% 2,246 + % 2,5eko diferentziala) 2007ko MFEen jaulkipenetarako, hurrengo urtean ordainduko baitira.

EROSKI – Komunikazio Korporatiboko arduraduna

Patricia Martin Sanchidrian

Tel.: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKIri buruz

EROSKI Espainiako merkatuaren iparraldeko banaketa-talde liderretako bat da — Galiziatik Balearretara —, eta % 12,7ko merkatu-kuota du eremu horretan; liderra da Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Galizian, eta koliderra da Balearretan. Bere sare komertziala, 2024aren amaieran, 1.502 saltokira igotzen da, supermerkatu, hipermerkatu, cash & carry eta online supermerkatuen artean; gasolindegiez, kirol-dendez eta elikadurakoak ez diren beste negozio batzuez gain. Era berean, 6,4 milioi bazkide bezero baino gehiago ditu, eta 27.600 pertsonak baino gehiagok osatzen dute bere plantilla; horietatik 9.000 inguru bazkide jabeak dira.

EROSKI – Komunikazio Korporatiboko arduraduna**Patricia Martin Sanchidrian****Tel.: 946 211 214****comunicacion@eroski.es**

EROSKI – Komunikazio Korporatiboko arduraduna

Patricia Martin Sanchidrian

Tel.: 946 211 214

comunicacion@eroski.es